

**ERABAKIA,** Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez onartzen baita beste bi ikasturtez luzatzea, 2025eko irailaren 30era arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek 2021eko otsailaren 9an sinatutako hitzarmena, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko.

2021eko otsailaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek hitzarmen bat sinatu zuten, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko. Hitzarmenaren xedea da jarduketak definitzea ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko euskal hezkuntza-sistemako prestakuntza arautuan sartutako ikasketak egiten dituzten ikasleen artean. Unitate didaktiko hori DBHko 4. mailan, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan emango da, ikastetxe bakoitzaren aukeran, ikasleen artean kontzientziazio fiskal handiagoa sustatzeko.

Jarduketa horietan, funtsean, unitate didaktiko hori 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan ezartzeko zerbitzu-kontratu bat esleitu zen 2021eko ekainaren 15ean, eta, ondoren, kudeatu egin zen. Zeregin horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari esleitu zitzaizkion, hezkuntzaren arloan eskumena duen administrazioa den aldetik, eta inplikaturako lau administrazio publikoek kontratu hori finantzatzeko irizpideak zehaztu zituzten.

**ACUERDO** de la Diputación Foral por el que se aprueba suscribir el acuerdo de prórroga por un período de dos cursos escolares adicionales, hasta el 30 de septiembre de 2025, del convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la comunidad autónoma de euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, suscrito el 9 de febrero de 2021

El 9 de febrero de 2021, se suscribió el Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, cuyo objeto consiste en definir las actuaciones dirigidas a la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad entre el alumnado que curse estudios incluidos en la formación reglada del sistema educativo vasco, a impartir en 4º curso de la ESO, Bachillerato o Formación Profesional, a elección de cada centro educativo, con el fin de promover una mayor concienciación fiscal entre el colectivo estudiantil.

Dichas actuaciones consistieron, básicamente, en la adjudicación el 15 de junio de 2021, y en la posterior gestión, de un contrato de servicios para la implantación de la referida unidad didáctica durante los cursos 2021-2022 y 2022-2023, tareas éstas que se encomendaron a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su condición de Administración competente en materia de educación, así como en la determinación de los



Aipatutako hitzarmenaren zortzigarren klausulan hitzarmena beste bi ikasturtez luzatzeko aukera aurreikusten da, administrazio publiko sinatzaileek aho batez adostuta. Hau da, 2025eko irailaren 30era arte (egun hori barne), laugarren klausulako baldintzak eguneratu eta aurrekontu-kontsignazio nahikoa dagoela egiaztatu ondoren.

Bestalde, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan unitate didaktiko hori ezartzeko zerbitzu-kontratuak, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak esleitu zuen, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetarako luzatzeko aukera ere aurreikusten du. Horretarako baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko hitzarmena luzatzea, hain zuzen ere, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko, hitzarmenaren zortzigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorio horietarako, azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak iruzurraren aurka egiteko onartutako irizpideen artean sartu da -zergapekoek beren tributu-betebeharrak borondatez betetzea sustatzeko eta herritarren kontzientzia fiskal kolektiboa indartzeko prebentzio-jarduketan artean- zergen arloko hezkuntza-modulu bat ematea, proiektuan parte hartu nahi duten Bizkaiko Lurralde Historikoko ikastetxeei zuzendutakoa.

criterios de financiación del mencionado contrato por parte de las cuatro Administraciones públicas implicadas.

La Cláusula Octava del precitado Convenio prevé la posibilidad de prorrogarlo, por acuerdo unánime de las Administraciones Públicas firmantes, durante un período de dos cursos escolares adicionales, hasta el 30 de septiembre de 2025 incluido, previa actualización de los términos de la cláusula cuarta, y acreditación de la consignación presupuestaria suficiente.

Por su parte, el contrato de servicios para la implantación de la repetida unidad didáctica durante los cursos 2021-2022 y 2022-2023, adjudicado por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, también prevé la posibilidad de prórroga *“para los cursos 2023-2024 y 2024-2025, si se procede a la prórroga del Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, conforme a lo previsto en la cláusula octava del mismo”*.

A estos efectos, en los últimos años, los criterios de lucha contra el fraude aprobados por la Dirección General de Hacienda de la Diputación Foral de Bizkaia han incluido, entre las actuaciones preventivas dirigidas a promover el cumplimiento voluntario por las personas obligadas tributarias y el fortalecimiento de la conciencia fiscal colectiva de la ciudadanía, la impartición de un módulo de educación tributaria dirigido a los centros escolares del Territorio Histórico de Bizkaia que deseen adherirse al proyecto.



Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren Kontra Borrokatzeko Batzordeak – Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren 2013ko urriaren 14ko erabakiaren bidez sortua– 2016tik egindako Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plan Bateratuek ere jarduketa horiek jasotzen dituzte lehentasunezko jardueraildoen artean.

Testuinguru horretan, hitzarmenaren indarraldian zehar izandako esperientzia positibotzat jo dela kontuan harturik, eta Hitzarmenaren Jarraipen eta Balorazio Batzordeak egindako luzapen-proposamena ikusirik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzat jotzen dute hitzarmena beste bi ikasturtez luzatzea (2023-2024 eta 2024-2025), ikasleen artean kontzientziazio fiskal handiagoa sustatzeko.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak indarrean dagoen zerbitzu-kontratuaren luzapena aktibatuko du.

Hori dela eta, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2023ko maiatzaren 9ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Asimismo, los Planes Conjuntos de Lucha contra el Fraude elaborados desde 2016 por la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco, creada mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi de 14 de octubre de 2013, incluyen, igualmente, estas mismas actuaciones entre sus líneas prioritarias de actuación.

En este contexto, teniendo en cuenta la experiencia satisfactoria constatada durante la vigencia del Convenio, y vista la propuesta de prórroga formulada por la Comisión de Seguimiento y Valoración del Convenio, la Diputación Foral de Bizkaia, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Álava y la Diputación Foral de Gipuzkoa consideran oportuno acordar la prórroga del convenio durante dos cursos escolares adicionales (2023-2024 y 2024-2025), con el fin de continuar promoviendo la concienciación fiscal entre el colectivo estudiantil.

Consecuentemente, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi procederá a activar la prórroga del contrato de servicios en vigor.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral, en su reunión de 9 de mayo de 2023,



## ERABAKITZEN DU

### Lehena.-

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko sinatutako hitzarmena 2025eko irailaren 30era arte luzatzeko akordioa sinatzea, beste bi ikasturterako. Hitzarmena 2021eko otsailaren 9an sinatu zen, administrazio horien artean teknikoki adostutako testuarekin (akordio honi erantsi zaio).

### Bigarrena.-

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena ematea erabaki hau betetzeko behar diren dokumentu guztiak egin ditzan.

O. E. / Vº Bº

Ogasuneko zuzendari nagusia / La dirección general de Hacienda.

IÑAKI ALONSO ARCE.

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /

De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatua / El diputado foral de Hacienda y Finanzas.

JOSE Mª IRUARRIZAGA ARTARAZ

## ACUERDA

### Primero.-

Suscribir el Acuerdo de Prórroga por un Período de Dos Cursos Escolares Adicionales, hasta el 30 de septiembre de 2025, del Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, suscrito el 9 de febrero de 2021, con el texto acordado técnicamente entre dichas Administraciones, que se adjunta como Anexo al presente Acuerdo.

### Segundo.-

Autorizar al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas para otorgar cuantos documentos sean precisos de cara a la ejecución del presente Acuerdo.

**ERANSKINA: AKORDIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEK 2021eko OTSAILAREN 9AN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN EKONOMIA ETA ZERGEI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKO KOMUN BAT EZARTZEKO 2021-2022 ETA 2022-2023 IKASTURTEETAN SINATUTAKO HITZARMENA BESTE BI IKASTURTEZ LUZATZEKO DENA, 2025eko IRAILAREN 30era ARTE.**

**ANEXO: ACUERDO DE PRÓRROGA POR UN PERÍODO DE DOS CURSOS ESCOLARES ADICIONALES, HASTA EL 30 DE SEPTIEMBRE DE 2025, DEL CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA PARA LA IMPLANTACIÓN DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA COMÚN SOBRE ECONOMÍA Y FISCALIDAD EN LOS CENTROS ESCOLARES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI EN LOS CURSOS 2021-2022 Y 2022-2023, SUSCRITO EL 9 DE FEBRERO DE 2021.**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko -----aren XX

En Vitoria-Gasteiz, a XX de ----- de 2023

#### BILDU DIRA

PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE jauna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta ordezkari gisa (aurrerantzean, EAE).

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO andrea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru-diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkari gisa.

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ jauna, Ogasun eta Finantzen foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta ordezkari gisa.

JOKIN PERONA LERCHUNDI jauna, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru-diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkari gisa.

Horiek guztiek beren eskumenen arabera jardunez eta akordio hau sinatzeko ahalmenak dituztenez, honako hau

#### ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- 2021eko otsailaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko hitzarmena sinatu zen, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko.

Bigarrena.- Hitzarmen horren xedea, lehenengo klausulan adierazten denaren arabera, honako hau da: "euskal hezkuntza-sistemako prestakuntza arautuan sartutako ikasketak egiten dituzten ikasleen artean ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko jarduketak definitzea. Unitate didaktiko hori DBHko 4. mailan, Batxilergoan

#### REUNIDOS

D. PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE, Consejero de Economía y Hacienda, actuando en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante CAE).

DÑA. ITZIAR GONZALO DE ZUAZO, Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava.

D. JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

D. JOKIN PERONA LERCHUNDI, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Actuando todos en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose facultades para la suscripción del presente Acuerdo y en tal sentido,

#### EXPONEN

Primero.- Que con fecha 9 de febrero de 2021 se suscribió el Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023.

Segundo.- Que el objeto del referido Convenio, según se expresa en su Cláusula Primera es "definir las actuaciones dirigidas a la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad entre el alumnado que curse estudios incluidos en la formación reglada del sistema educativo vasco, a impartir en 4º curso de la ESO, Bachillerato o Formación Profesional, a

edo Lanbide Heziketan emango da, ikastetxe bakoitzak aukeratuta, ikasleen artean kontzientziazio fiskal handiagoa sustatzeko”.

Halaber, lehen klausula horrek bigarren paragrafoan xedatzen duenez, jarduera horien artean, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan unitate didaktiko hori ezartzeko zerbitzu-kontratu bat esleitzea eta kudeatzea ditu, eta baita EAEko Administrazioak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratu hori finantzatzeko irizpideak zehaztea ere.

Hirugarrena.- Aurretik aipatutako hitzarmenaren zortzigarren klausulak administrazio sinatzaileen ahobatezko erabakiaz hitzarmena luzatzeko aukera aurreikusten du, beste kontratu bat esleitu eta kudeatu dadin beste bi ikasturtez, 2025eko irailaren 30 arte, bera barne, laugarren klausulako baldintzak eguneratu ondoren, eta aurrekontu-kontsignazio nahikoa egiaztatu ondoren.

Laugarrena.- Hitzarmenaren bigarren klausulan xedatutakoarekin bat etorritik, EAEko Administrazio Orokorrari agindu zitzaion lehenengo klausulan aipatzen diren zerbitzuak kontratatuzko. Kontratua 2021-06-15ean formalizatu zen, eta 2023-07-31era arte dago gauzatzen. Kontratu horren administrazio-klausula partikularren agiriak, klausula espezifikoaren 6.4 apartatuan, honako hau ezartzen du:

“Kontratua 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetarako luzatu ahal izango da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko sinatutako hitzarmena luzatzen bada, hitzarmenaren zortzigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera.”

Bosgarrena.- Hitzarmenaren Jarraipen eta Baloraziorako Batzordeak, Bosgarren Klausulan aurreikusitakoak, aginduta dauzkan eginkizunetako bat betez, proposatu du hitzarmena «luzatzea, Zortzigarren Klausulan aipatu bezala, eta eguneratzea, luzapenaren eraginpeko aurrekontu-ekitaldietarako kontratuko kostuaren banaketa Laugarren Klausulan ezarritako irizpideen arabera».

Hitzarmena indarrean egon denean egiaztatutako esperientzia onagatik eta Hitzarmenaren Jarraipen eta Baloraziorako Batzordeak egindako luzapen-proposamena ikusita, parte hartzen duten alderdiek Luzapen Akordio hau sinatu dute, honako hauekin bat etorritik

elección de cada centro educativo, con el fin de promover una mayor concienciación fiscal entre el colectivo estudiantil.”

Asimismo, la referida Cláusula Primera, dispone en su párrafo segundo que “Entre tales actuaciones se incluyen las relativas a la adjudicación y gestión de un contrato de servicios para la implantación de dicha unidad didáctica durante los cursos 2021-2022 y 2022-2023, así como la determinación de los criterios de financiación del mencionado contrato por parte de la Administración de la CAE, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia y Diputación Foral de Gipuzkoa.”

Tercero.- Que la Cláusula Octava del precitado Convenio, prevé la posibilidad de prorrogar el Convenio por acuerdo unánime de las Administraciones Públicas firmantes, por un período de dos cursos escolares adicionales hasta el 30 de septiembre de 2025 incluido, previa actualización de los términos de la cláusula cuarta, y acreditación de la consignación presupuestaria suficiente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en la Cláusula Segunda del Convenio, se encomendó a la Administración general de la CAE la contratación de los servicios a los que hace referencia el segundo párrafo de la Cláusula Primera. El contrato se formalizó en fecha 15/06/2021 y se encuentra en ejecución hasta el 31/07/2023. El Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares de dicho contrato, en su apartado 6.4 de cláusulas específicas, establece lo siguiente:

“El contrato podrá ser prorrogado para los cursos 2023-2024 y 2024-2025, si se procede a la prórroga del Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, conforme a lo previsto en la cláusula octava del mismo.”

Quinto.- Que la Comisión de Seguimiento y Valoración del Convenio, prevista en su Cláusula Quinta, en ejercicio de una de las funciones que tiene encomendadas, ha propuesto “la prórroga a la que se refiere la cláusula Octava y la actualización, para los ejercicios presupuestarios afectados por la prórroga, de la distribución del coste del contrato conforme a los criterios establecidos en la cláusula Cuarta”.

Dada la experiencia satisfactoria constatada durante la vigencia del Convenio y, vista la propuesta de prórroga formulada por la Comisión de Seguimiento y Valoración del Convenio, las partes intervinientes suscriben el presente Acuerdo de Prórroga, conforme a las siguientes

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.-

1.- 2023ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte luzatzen da 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien artean 2021eko otsailaren 9an sinatutako hitzarmena.

2.- Aurrekoan oinarrituta, EAeko Administrazio Orokorrak indarrean dagoen zerbitzu-kontratuaren luzapena aktibatuko du. Ondorio horietarako, kontratazio-organoak dagokion erabakia hartuko du, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.2 artikuluan aipatutako epean igorriko dio aurreikuspena enpresa kontratistari.

### BIGARRENA.-

Luzatutako Hitzarmenaren Laugarren Klausula honela eguneratuta geldituko da:

#### LAUGARRENA.- Kontratuaren finantzaketa.

1. Unitate didaktikoa ezartzeko kostua honela banatzen da:

a. Unitate didaktikoa ezartzeko zerbitzuen ondoriozko kostu finkoak.

- i. Memoriak eta txostenak: Behin betiko diseinua, metodologia eta plangintza jasotzen dituen memoria, informazio-memoriak eta behin betiko memoria.
- ii. Material didaktikoa egitea eta funtzio anitzeko plataforma garatzea.
- iii. Programa ezartzen den ikastetxe kopuruak kostuan zuzenean eraginda ez dauden beste batzuk.

EAeko Administrazioak: % 50

Foru-aldundiek: Gainerako % 50a, baliabideak banatzeko metodologiari eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenei buruzko araudian hitzarmen honen luzapena aplikatzeko den lehen ikasturtearen hasieran araututa dauden indarreko koefiziente horizontalen arabera banatuta, hau da, 2023-2024 ikasturterako:

## CLÁUSULAS

### PRIMERA.-

1.- Se proroga, desde el 1 de octubre de 2023 hasta el 30 de septiembre de 2025, el Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los cursos 2021-2022 y 2022-2023, suscrito el 9 de febrero de 2021.

2.- En base a lo anterior, la Administración general de la CAE procederá a activar la prórroga del contrato de servicios en vigor. A tales efectos, el órgano de contratación adoptará el correspondiente acuerdo y dirigirá a la empresa contratista el preaviso en plazo a que se refiere el artículo 29.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de contratos del Sector Público.

### SEGUNDA.-

La Cláusula Cuarta del Convenio prorrogado, queda actualizada en los siguientes términos:

#### CUARTA.- Financiación del contrato.

1. La distribución del coste de implantación de la unidad didáctica se realizará del siguiente modo:

a. Costes fijos derivados de los servicios de implantación de la unidad didáctica.

- i. Memorias e informes: memoria diseño definitivo, metodología y planificación, memorias informativas y memoria final.
- ii. Material didáctico y plataforma multifuncional.
- iii. Otros cuyo coste no esté en función directa del número de centros escolares en que se implante el programa.

Administración de la CAE: 50%

Diputaciones Forales: 50% restante, distribuido conforme a los coeficientes horizontales regulados en la normativa de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que estén vigentes al inicio del primer curso al que resulta de aplicación la prórroga del presente Convenio, es decir, para el curso 2023-2024:



Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia	Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
% 8,025	% 25,270	% 16,705
8,025 %	25,270 %	16,705 %

b. Programa ezartzeko kostuak, ikastetxe bakoitzeko unitate-zenbateko batetik abiatuta zehaztuta. Zenbateko hori hautatutako prestakuntza-ibilbideen arabera modulatu ahal izango da.

EAEko Administrazioak: Programa irakasten duten EAEko ikastetxe guztietan ezartzeko kostuaren % 50a.

Foru-aldundiak: Foru-aldundi bakoitzari dagokio bere lurralde historikoko ikastetxeetan ezartzeko kostuaren % 50a.

2. Kontratazio-espeditentean gehieneko kostua finkatzeko erreferentziatzko egoera programaren luzapenaren indarraldiko bi ikasturteetako bakoitzean lortu beharreko ezarpen-mailaren helburu hauen ondoriozkoa da:

b. Costes de implantación del programa determinados a partir de un importe unitario por centro educativo que podrá modularse en función de los itinerarios formativos elegidos:

Administración de la CAE: 50% del coste correspondiente a la implantación en todos los centros de la CAE en los que se imparta el programa.

Diputaciones Forales: cada Diputación Foral el 50% del coste de implantación en los centros de su correspondiente Territorio Histórico.

2. El escenario de referencia para fijar el coste máximo en el expediente de contratación es el derivado de los siguientes objetivos de grado de implantación, a alcanzar en cada uno de los dos cursos de vigencia de la prórroga del programa:

EGOERA 2023/2024 ESCENARIO △ aprox 2,5% %59 estaldura-tasa 59% tasa de cobertura	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA EAE /TOTAL CAE
ESTALDURA-TASA TASA DE COBERTURA	59%	59%	59%	59%
PROGRAMARA ATXIKITAKO IKASTETXE KOPURUA Nº CENTROS ADHERIDOS AL PROGRAMA	35	142	99	276
EGOERA 2024/2025 ESCENARIO △ aprox 2,5% %61 estaldura-tasa 61% tasa de cobertura	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA EAE /TOTAL CAE



<b>ESTALDURA-TASA TASA DE COBERTURA</b>	61%	61%	61%	61%
<b>PROGRAMARA ATXIKITAKO IKASTETXE KOPURUA Nº CENTROS ADHERIDOS AL PROGRAMA</b>	36	146	103	285

Ondorioz, parte hartzen duten erakundeek gehienez beren gain hartutako konpromiso ekonomikoa honako hau da:

En consecuencia, el compromiso económico máximo asumido por las instituciones partícipes es el siguiente:

<b>2023-2024 IKASTURTERAKO EAE-KO IKASTETXEETAN EKONOMIARI ETA ZERGEI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOA EZARTZEKO KOSTUAREN ERAKUNDEEN BANAKETA</b>						
<b>DISTRIBUCIÓN INSTITUCIONAL DEL COSTE DE IMPLANTACIÓN DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA ECONÓMICO-TRIBUTARIA EN LOS CENTROS ESCOLARES DE LA CAE CURSO 2023-2024</b>						
Egoera: gehienez 276 ikastetxe.						
Escenario máx. 276 centros escolares.						
<b>KOSTU FINKOAK COSTES FIJOS</b>	<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>EJ GOVA</b>	<b>AFA DFA</b>	<b>BFA DFB</b>	<b>GFA DFG</b>	<b>FFAA DD.FF</b>
Finantzaketaren %-a % de financiación		% 50 50%	% 8,025 8,025 %	% 25,270 25,270 %	% 16,705 16,705 %	% 50 50%
<b>Kostu finkoak, guztira (€ BEZ barne)</b> <b>Total Costes fijos (€ IVA incluido)</b>	<b>7.865,00</b>	<b>3.932,50</b>	631,17	1.987,49	1.313,85	<b>3.932,50</b>
<b>KOSTU ALDAGARRIAK COSTES VARIABLES</b>	<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>EJ GOVA</b>	<b>AFA DFA</b>	<b>BFA DFB</b>	<b>GFA DFG</b>	<b>FFAA DD.FF</b>
Finantzaketaren %-a % de financiación		% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%
<b>Kostu aldagarriak, guztira (€ BEZ barne)</b> <b>Total Costes variables (€ IVA incluido)</b>	<b>153.621,60</b>	<b>76.810,80</b>	9.740,50	39.518,60	27.551,70	<b>76.810,80</b>
<b>KOSTUA, GUZTIRA (€ BEZ barne)</b> <b>COSTE TOTAL (€ IVA incluido)</b>	<b>161.486,60</b>	<b>80.743,30</b>	<b>10.371,67</b>	<b>41.506,09</b>	<b>28.865,55</b>	<b>80.743,30</b>

2024-2025 IKASTURTERAKO EAE-KO IKASTETXEETAN EKONOMIARI ETA ZERGEI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOA EZARTZEKO KOSTUAREN ERAKUNDEEN BANAKETA						
DISTRIBUCIÓN INSTITUCIONAL DEL COSTE DE IMPLANTACIÓN DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA ECONÓMICO-TRIBUTARIA EN LOS CENTROS ESCOLARES DE LA CAE CURSO 2024-2025						
Egoera: gehienez 285 ikastetxe.						
Escenario máx. 285 centros escolares.						
KOSTU FINKOAK COSTES FIJOS	GUZTIRA	EJ GOVA	AFA DFA	BFA DFB	GFA DFG	FFAA DD.FF
Finantzaletaren %-a % de financiación	<b>TOTAL</b>	% 50 50%	% 8,025 8,225 %	% 25,270 25,270 %	% 16,705 16,705 %	% 50 50%
<b>Kostu finkoak, guztira (€ BEZ barne)</b> <b>Total Costes fijos (€ IVA incluido)</b>	<b>7.865,00</b>	<b>3.932,50</b>	631,17	1.987,49	1.313,85	<b>3.932,50</b>
KOSTU ALDAGARRIAK COSTES VARIABLES	GUZTIRA	EJ GOVA	AFA DFA	BFA DFB	GFA DFG	FFAA DD.FF
Finantzaletaren %-a % de financiación	<b>TOTAL</b>	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%
<b>Kostu aldagarriak, guztira (€ BEZ barne)</b> <b>Total Costes variables (€ IVA incluido)</b>	<b>158.631,00</b>	<b>79.315,50</b>	10.018,80	40.631,80	28.664,90	<b>79.315,50</b>
<b>KOSTUA, GUZTIRA (€ BEZ barne)</b> <b>COSTE TOTAL (€ IVA incluido)</b>	<b>166.496,00</b>	<b>83.248,00</b>	<b>10.649,97</b>	<b>42.619,29</b>	<b>29.978,75</b>	<b>83.248,00</b>

3. Hitzarmena sinatzen duten administrazioek ordainduko dute aipatutako zenbatekoa, aurrekontuko honako programa eta partida hauen kargura:

3. Dicho importe será financiado por cada una de las administraciones firmantes de este convenio, con cargo a los siguientes programas y partidas presupuestarias:

<u>Administrazioa</u> <u>Administración</u>	<u>Aurrekontu-esleipena:</u> <u>Consignación</u> <u>presupuestaria:</u>	<u>Gehieneko</u> <u>zenbatekoa (BEZa</u> <u>kanpo)</u> <u>Importe máximo (sin</u> <u>IVA)</u>	<u>BEZ</u> <u>IVA</u>	<u>Zenbatekoa,</u> <u>guztira</u> <u>Importe total</u>	<u>Urtekoak Anualidades</u>
EAEko Admin. Admón. CAE	2023-06-6112-31-244- 19/0799	271.060,00 €	56.922,60 €	327.982,60 €	Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2023: 48.445,98 €  Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2024: 162.989,42 € Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2025: 116.547,20 €
Arabako FA D.F. Álava	20100.G/932201/64090200	17.373,25 €	3.648,38 €	21.021,63 €	Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2023: 0 €  Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2024: 10.371,67 €  Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2025: 10.649,97 €
Bizkaiko FA D.F. Bizkaia	0501G/920106/42130/0000 2017/0019	69.525,10 €	14.600,27 €	84.125,37 €	Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2023: 0 €  Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2024: 41.506,09 €  Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2025: 42.619,29 €

Gipuzkoako FA D.F. Gipuzkoa	0610.110.226.08.01	48.631,65 €	10.212,65 €	58.844,30 €	<p>Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2023: 0 €</p> <p>Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2024: 28.865,55 €</p> <p>Aurrekontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2025: 29.978,75 €</p>
--------------------------------	--------------------	-------------	-------------	-------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

4. Administrazio kontratatzaileak hartuko du bere gain kontratazioak eragindako kostuak ordaintzeko betebeharra, hargatik eragotzi gabe ondoren foru-aldundiei jasunaraztea. Ondore horietarako, EAEko Administrazioak egiaztatzeko fakturen kopia bidaliko dio bakoitzari, ikasturte bakoitzeko zer zenbateko dagokien adierazita, eta, ondoren, zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Nagusiaren kontura transferituko dute luzatutako urte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen.

Eta esandako guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek honako agiri honen lau kopia sinatu dituzte, goiburuan zehaztutako lekuan eta egunean.

4. Será la Administración contratante quien asumirá el abono de los costes derivados de la contratación, sin perjuicio de su posterior repercusión a las Diputaciones Forales. A estos efectos la Administración de la CAE remitirá a cada una de ellas copia de las facturas acreditativas, con indicación del importe que les corresponda, por cada curso escolar, tras lo cual éstas procederán a transferir dicho importe a la cuenta de la Tesorería General del Gobierno Vasco antes del 1 de octubre de cada año.

Y en prueba de conformidad con lo expuesto, las partes firman cuatro ejemplares del presente documento, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio  
Orokorra  
Administración General de la Comunidad Autónoma  
de Euskadi

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa